



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Arriaga Antzokiak tailer bat antolatu du hizkuntza gutxietan idatzitako antzerki-testuak itzultzeko, DoSEL europar proiektuaren esparruan

- Arriaga Antzokiak *Moto-Membra Jesu Nostri* produkzio propioa aukeratu du, Eneko Sagardoyren euskarazko testua albanierara itzultzen ari baitira. Bestalde, Jeton Neziraj kosovar egilearen *Aventurat e familjes Bosh në Unmikistán* lana albanieratik euskarara itzultzen ari dira.
- Tailerra apirilaren 26tik 30era egingo da Arriaga Antzokian, Etxepare Euskal Institutuaren laguntzarekin, eta hiru itzultzaile gaituk azken ukitua emango diete itzulpenei, Sagardoy eta Nezirajekin elkarlanean.
- Hilaren 29an, egile eta itzultzaileek "Testu dramatikoaren itzulpenaren erronkak eta ikuspegiak" izeneko mahai-inguruan parte hartuko dute, Irene Larraza Etxepareko zuzendaria moderatzaile dutela, eta Kirmen Uribe eta DoSEL proiektuan parte hartzen duten Europako beste antzoki batzuetako antzerkigile batzuk online direla.

Bilbo, 2025eko apirilaren 14a.- DoSEL (Drama of Smaller European Languages) proiektu europarra Bilbora iritsiko da eta Arriaga Antzokia bete-betean sartuko da proiektuan apirilaren 26tik 30era antzokian bertan antolatutako tailerrarekin. Tailerraren helburua hizkuntza gutxietan idatzitako bi antzerki-testuren itzulpena amaitzea da, testu bakoitza bestearen hizkuntzara ekarriz; horrez gain, hizkuntza gutxitu batean idatzitako obra batek izan ditzakeen zailtasunen inguruko hausnarketa egin nahi da. Horrela, tailerrean DoSEL proiektuan dauden Europako bi antzokik parte hartuko dute. Batetik, **Arriaga Antzokiak**, **Eneko Sagardoy** aktoreak idatzitako *Moto-Membra Jesu Nostri* produkzio propioaren euskarazko testuarekin, zeinarekin idazkuntza dramatikorako jauzia egin baitzuen aktoreak; edertasunez eta sentsibiltatez jositako testu bat da, eta laudorio handiak jaso zituen 2022an estreinatu zenean. Eta bestetik, **Teatri Kombëtar i Kosovës** (National Theatre of Kosovo - Kosovoko Antzoki Nazionala) antzokiak, zeinak albanieraz idatzitako obra bat ekarriko baitu tailerrera: *Aventurat e familjes Bosh në Unmikistán*, **Jeton Neziraj** egile kosovarrarena. Neziraj nazioartean prestigio handiko antzerkigilea da, Balkanetako onenen artean dute eta kritikak txalotutako obra ugari ditu. Tailerrean, beraz, euskarazko obra albanierara itzuliko da, eta alderantziz, antzerkiaren bidez kulturen arteko elkarlertzea sustatuz, hori baita, azken batean, DoSEL proiektuaren helburuetako bat.



Tailerra Arriaga Antzokiak antolatu du, **Etxepare Euskal Institutuaren** laguntzarekin. Euskal institutuak itzultzaileak bilatzen lagundu dio Arriaga Antzokiari, bai euskarazko obra albanierara ekartzeko, bai alderantzizko norabidea egin ahal izateko. Horrez gain, **Irene Larraza** zuzendariak mahai-inguru bat moderatuko du hilaren 29an, tailerraren jarduera paralelo gisa.

Erronka idiomatikoak

Hizkuntza gutxitu batean idatzitako edozein antzerki-testuk duen zailtasun handietako bat da ezin dela zuzenean beste hizkuntza gutxitu batera itzuli. Horrela, eta adibide batzuk aipatzearen, ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez edo alemanez idatzitako edozein obra zuzenean itzul daiteke edozein hizkuntzara, edo edozein hizkuntzatik itzul daiteke hizkuntza global horietara; aitzitik, nekez lor daiteke hizkuntza gutxitu batetik zuzenean beste hizkuntza gutxitu batera itzultzea. Tailerrean landuko diren adibide errealetara ekarrita, oso zaila da euskara eta albaniera hitz egiten dituen pertsona bat aurkitzea, baina ia ezinezkoa da bi hizkuntzen artean itzultzeko gai den itzultzaile kualifikatu bat aurkitzea. Horrek behartu egiten gaitu hizkuntza global bat zubi gisa erabiltzera eta horrek, normalean, bi itzultzaile kontratatu behar izatea dakar; kostua handitu egiten da eta, beraz, zaildu egiten du hizkuntza gutxituko lan bat bere herrialde edo eskualdetik atera ahal izatea, horrek kultura homogeneousatzeari eta aniztasuna oztopatzeari dagokionez dakartzan ondorioekin. DoSEL proiektuaren asmoa, hain zuzen, halako errealitatei erreparatzea da.

Testu literario eta dramatikoaren itzulpenean eskarmentu handia duten hiru itzultzaile ari dira parte hartzen apirilaren 26tik 30era Arriagan egingo den tailerrarekin amaituko den prozesuan. *Moto-Membra jesu nostri* euskaratik albanierara itzultzea arinagoa izan da, Eneko Sagardoy bera arduratu baita euskaratik gaztelaniarako jauzia egiteaz, eta, beraz, nahikoa izan baita itzultzaile bakarrarekin. Horrela, gaztelaniatik albanierarako itzulpenaz Bashkim Shehu idazle eta itzultzailea arduratzen ari da, eta harekin batera egingo du lan Sagardoyk tailerrean itzulpena doitzeko, haren inguruan eztabaidatzeko, amaitzen laguntzeko, etab. *Aventurat e familjes Bosh në Unmikistán* obra albanieratik euskarara itzultzeko prozesuan, aldiz, tailerrean Jeton Nezirajekin batera lanean arituko diren bi itzultzaileak ari dira parte hartzen: María Rocés González da testua gaztelaniara ekarri duena eta Izaskun Gracia Quintanak gaztelaniatik euskarara ekarriko du.

Tailerrean zehar, Eneko Sagardoyk eta Jeton Nezirajek, hiru itzultzaileekin batera, gogoeta egingo dute prozesuan izan dituzten zailtasunei eta tailerrean bertan irtenbidea behar duten erronkei buruz. Erronka horietako batzuk jada aurreratu daitezke, hala nola hizkuntza batean konnotazio jakin batzuk dituzten esaldiak, esaerak edo esamoldeak beste hizkuntza batera eraman ahal izateko moduak, edo tartean zubi-hizkuntza bat dagoenean, hizkuntza batera baino gehiagotara eramateko moduak. Interesgarria izango da, halaber, ikustea nola bideratzen den testuen tonua hizkuntza bakoitzean, kontuan hartuta agertoki batean antzeztuak izateko helburuarekin sortzen diren antzerki-testuak direla. Horri dagokionez, segur aski, itzultzaileentzat oso aberasgarria eta interesgarria izango da edozein zalantza edo erabaki zuzenean egileekin kontrastatu ahal izatea, baita haiekin aukera posibleak eztabaidatu ahal izatea ere.

Mahai-ingurua asteartean, 29an

Hain zuzen ere, gai horiek jorratuko dituzte parte hartzaileek, berariaz eta iritzi gehiagori irekita, apirilaren 29rako "Testu dramatikoaren itzulpenaren erronkak eta



DRAMA
OF SMALLER
EUROPEAN
LANGUAGES



Co-funded by
the European Union



ikuspegiak" izenburupean antolatutako mahai-inguruan. Tailerraren jarduera paralelo horren moderatzailea **Irene Larraza** izango da, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria, eta bertan izango dira parte hartzen duten bi egileak, Sagardoy eta Neziraj, eta hiru itzultzaileak. Horrez gain, ekarpen interesgarriekin aberasteko asmoz, **Kirmen Uribe** ere parte hartuko du, online, zoom bidez konektatuz, euskal egilearen literatura testuak gehien eta hizkuntza ugaritara itzuli direnen artean baitaude. Haiekin batera izango da ere **Jure Novak** antzerkigile eta zuzendari esloveniar prestigiotsua, zeina oso konprometituta baitago Europako hizkuntza gutxituen errealitatearekin. Izan ere, DoSEL proiektuaren bultzatzaileetako bat izan zen. Azkenik, DoSEL proiektuan dauden Europako beste antzoki batzuetako antzerkigile eta sortzaile batzuk online konektatzea ere aurreikusi da.

Gogorarazi behar dugu, Arriaga Antzokiarekin eta Kosovoko Antzoki Nazionalarekin batera, honako espazio kultural hauek parte hartzen dutela proiektuan: Presernovo gledališce Kranj (Eslovenia), National Agency for the Performing Arts (Malta), Croatian National Theatre in Zagreb (Kroazia), Foundation Estonian Theatre Agency (Estonia), "Ivan Vazov" National Theatre (Bulgaria) eta Beckett aretoak (Katalunia).

Arriaga Antzokiak gogo handiz hartzen du parte proiektu honetan, zeinak Europako aniztasun kulturala sustatu nahi baitu, esperientziak trukatzuz eta kontinente zaharreko beste antzoki batzuekin lankidetzan jardunez, horiek ere lurralde-eremu txikiak hizkuntzatan lan egiten baitute.

Amaierako "oparia"

Amaiera gisa, tailerrean parte hartzen duten guztiak *Mari-Eliren* estreinaldira joango dira, apirilaren 30an: Arriaga Antzokiaren produkzio berri bat da, zeinak Jesús Guridiren zarzuela ezezagun bat berreskuratzen baitu eta, partituraren edizio kritiko bat egin ondoren, oholtzara eramango baita, Calixto Bieitoren zuzendaritza eszenikoarekin eta Jon Malaxetxebarriaren musika-zuzendaritzarekin.



Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

